



## Haurreskolak Partzuergoa eta bere azken erabakiak

Kaixo, lankide,

Haurreskolak Partzuergoak azken egunetan hartu dituen erabakien kontura **STEILAS** sindikatuak bere irakurketa plazaratu nahi du.

Hainbat haurreskola txiki ixtearen erabakia, azkenik, bertan behera utzi du gerentziak. Horren kontura azken egunetan hezitzaileen eta familien kexa eta aldarrikapenak jaso eta gero, kudeaketa ezberdinak medio, erabakia bertan behera uztea lortu dugu guztion artean. Haurreskola txikien egunerokotasuna eta etorkizuna horrela zalantzan jarri izana lotsagarria iruditzen zaigu printzipioz hori guztia babestu beharko luketen karguen partetik. Borrokak bere fruituak ematen ditu, eta oraingoan ere horrela izan da.

Era berean, uztaileko mugimenduen berri egun hauetan eman du enpresak. Nahiz eta sindikatuok mugimendu horien aurka gure iritzia etengabe argi eta garbi utzi, enpresak modu arbitrarioan gauzatu ditu urtez urte, irizpide pedagogiko guztien gainetik pasatuz, beste batzuen artean. Aurten ere, horrela egin du.

Gainera, azken egunetara arte itxoin izana errespetu falta galanta da, bai hezitzaileekiko, bai haur eta familieki. Haurreskola asko salduta uzten dituzte erabaki horiek, hezitzaileen mugimendu horrek haur eta familiei suposatzen dien guztiarekin. Hori guztia gutxi ez eta, zuek inork baino hobeto dakizuen bezala, kontratua luzatuko ez zaien hezitzaileek edota mugituak izango diren hezitzaileek bapatean jasotzen dute jakinarazpena, eta hori ez da batere bidezkoa. Horren aurrean, zuei ere zuen zein familien desadostasuna adieraztea gomendatu dizuegu; guztion artean ahalik eta presio gehiago egin, hobe. Mugimendu asko bertan behera uztea lortu dugu horrela guztion artean ere.

Haurreskolak Partzuergoari horrela gehiago ez jokatzeke exijitu beharrean gaude berriro ere. Ezin ditu errespetu eta enpatia falta izugarri horiek erabili enpresa kudeatzen duen bezala kudeatzeko. Hezitzaile, haur eta familiak pertsonak gara, ez zenbaki hutsak.

**STEILAS**ek behin eta berriz jarri du mahai gainean Haurreskolak Partzuergoaren kudeaketa horrek bukaera behar duela izan. Horrela adierazi genuen pasa den astean argitaratu genuen **iritzi artikuluan** (klikatu irakurtzeko). Geroz eta arrazoi gehiago ditugu planteamendu horri eusteaz gain, hori bera indartzeko.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu azken egun hauetan guregan jarritako konfiantzagatik.

Euskal Herrian, 2021eko ekainaren 30ean.



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus

